

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 197/2008 foru dekretua, 2008ko Abenduaren 16koa, Inoren Laguntza Behar duten Pertsonak Ebaluatzeko Batzorde Teknikoa.**

Inoren laguntza-beharra izatea aitortzeko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiko apirilaren 24ko 74/2007 Foru Dekretuak, bere xedapen iragankorrean, ezarri zuen Inoren Laguntza-beharra duten Pertsonak Baloratze Batzorde Tekniko bat sortuko dela eskumen eremu honetan zabaltzen diren espedienteak aztertu eta horien inguruko irizpena eta ebazpen proposamena emateko. Berau sortu arte batzorde horren eskumenak Adinekoak Baloratze Batzorde Teknikoak gauzatu zituela ezarri zuen ere.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren Araudi Organikoa onetsi duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 18ko 38/2008 Foru Dekretuaren bidez, administrazio unitate berriak sortu ziren, hala nola Ebaluazio eta Orientazio Zerbitzua. Hala eskatzen duten pertsonen egoera soziala, osasun egoera eta bere inguru-nearena ebaluatzeko eginkizunak betetzea dagokio Zerbitzu horri, pertsona horien mendekotasun gradua eta maila zehazteko, baita pertsona horiek, beraien egoeraren arabera, zerbitzu eta prestazio egokienetara bideratzea eta ezintasuna baloratzea ere.

Horregatik, eta apirilaren 24ko 74/2007 Foru Dekretuan ezarritakoa betetzeko, Bizkaiko Lurralde Historikoan Inoren Laguntza Behar duten Pertsonak Ebaluatzeko Batzorde Teknikoa sortu eta arautu da, arlo honetan erabakiak hartzerakoan laguntza emateko organo gisa. Horren helburua izango da pertsonen autonomiaren galeraren inguruko erabakiak eta neurriak hartzean era askotako irizpideak izatea ekiditea eta zorrotasun eta fidagarritasunik handiena bermatzea.

Hori dela bide, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubidea eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 17. artikulua, 39. artikuluko k) idatzizatiak eta 64. artikuluko 3. paragrafoak emandako ahalmenak erabiliz, Foru Aldundiak 2008ko abenduaren 16ko bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

**1. artikulua.—Izaera**

Inoren Laguntza Behar duten Pertsonak Ebaluatzeko Batzorde Teknikoa kide anitzeko organo aholku-emailea da, Gizarte Ekintza Saileko foru diputatuari inoren laguntza behar duten pertsonen arloan erabakiak hartzeko informazioa, hausnarketa eta laguntza emango diona.

**2. artikulua.—Xedea**

Hauek dira Inoren Laguntza Behar duten Pertsonak Ebaluatzeko Batzorde Teknikoaren xedek:

- a) Pertsonen autonomia mugatzen eta baldintzatzen duten osasun eta gizarte inguruabarrak baloratzea.
- b) Inoren laguntza behar duten pertsonak zaintzeko foru zerbitzuen eta prestazioen eskabideak aztertzea eta eztabaidatzea, eta haien inguruko proposamenak egitea.

**3. artikulua.—Helburua**

Inoren Laguntza Behar duten Pertsonak Ebaluatzeko Batzorde Teknikoaren helburua da pertsonen autonomiaren galeraren inguruko erabakiak eta neurriak hartzean era askotako irizpideak izatea ekiditea eta zorrotasun eta fidagarritasun gorenena bermatzea; horretarako, arlo askotako teknikari trebatuak ariko dira gaien inguruko eztabaidetan eta haiei buruzko irizpenak prestatzen.

**4. artikulua.—Eginkizunak**

Inoren Laguntza Behar duten Pertsonak Ebaluatzeko Batzorde Teknikoak hala eskatzen duten pertsonen egoera soziala, osasun egoera eta bere inguru-nearena ebaluatzearekin zerikusia duten eginkizunak beteko ditu, pertsona horien mendekotasun gradua eta maila zehazteko. Pertsona horiek, beraien egoeraren arabera, zerbitzu eta prestazio egokienetara bideratu eta ezintasuna baloratuko du ere. Zehatz-mehatz, honako hauek izango dira bere eginkizunak:

- a) Mendekotasun gradu eta mailari buruzko proposamenak egitea, baita pertsona horrek behar dituen zaintzei buruzkoak ere.
- b) Premiazkotzat jotzen diren egoerei buruzko proposamenak egitea horiek ebazteko eskumena duten zerbitzuei.

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 197/2008, de 16 de diciembre, por el que se crea y regula la comisión técnica de valoración de las personas dependientes.**

El Decreto Foral 74/2007, de 24 de abril, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se regula el procedimiento para el reconocimiento de la situación de dependencia, prevé en su Disposición Transitoria la creación de una Comisión Técnica de Valoración de las Personas Dependientes para el estudio, dictamen y propuesta de resolución de los expedientes abiertos en este ámbito competencial, así como que hasta ese momento sus competencias serán ejercidas por la Comisión Técnica de Valoración de Personas Mayores.

Mediante Decreto Foral 38/2008, de 18 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento Orgánico del Departamento de Acción Social de la Diputación Foral, se procedió a la creación de nuevas unidades administrativas, en concreto al Servicio de Valoración y Orientación, al que se le atribuye el ejercicio de funciones encaminadas a valorar la situación social, sanitaria y del entorno de las personas que así lo soliciten, con objeto de determinar su grado y nivel de dependencia, y orientar hacia los servicios y prestaciones más idóneos para su situación, así como la valoración de la discapacidad.

Por ello, y con la finalidad de dar cumplimiento a lo establecido en el Decreto Foral 74/2007, de 24 de abril, se crea y regula la Comisión Técnica de Valoración de las Personas Dependientes del Territorio Histórico de Bizkaia, como órgano de apoyo a la toma de decisiones en ese ámbito que tiene como finalidad evitar la dispersión de criterios y garantizar el máximo rigor y fiabilidad en la toma de decisiones y en las diferentes medidas que se adoptan con relación a la pérdida de autonomía de las personas.

En su virtud y en uso de las facultades conferidas por los artículos 17, 39, párrafo k) y 64, número 3, de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, y previa deliberación y aprobación de la Diputación Foral en sesión celebrada el día 16 de diciembre de 2008,

DISPONGO:

**Artículo 1.—Naturaleza**

La Comisión Técnica de Valoración de las Personas Dependientes es un órgano consultivo colegiado, de información, deliberación y apoyo para la toma de decisiones por parte del diputado foral del Departamento de Acción Social en materia de personas dependientes.

**Artículo 2.—Objeto**

Es objeto de la Comisión Técnica de Valoración de las Personas Dependientes:

- a) La valoración de las circunstancias sanitarias y sociales que limitan y condicionan la autonomía de las personas.
- b) El estudio, deliberación y realización de propuestas relativas a las solicitudes de servicios y prestaciones forales destinados al cuidado de las personas dependientes.

**Artículo 3.—Finalidad**

La Comisión Técnica de Valoración de las Personas Dependientes tiene como finalidad evitar la dispersión de criterios y garantizar el máximo rigor y fiabilidad en la toma de decisiones y en las diferentes medidas que se adoptan con relación a la pérdida de autonomía de las personas, mediante la participación en la deliberación de los asuntos y en la elaboración de los correspondientes dictámenes de personal técnico cualificado y multidisciplinar.

**Artículo 4.—Funciones**

La Comisión Técnica de Valoración de las Personas Dependientes desempeñará todas aquellas funciones relacionadas con la valoración social, sanitaria y del entorno de las personas que así lo soliciten, con objeto de determinar su grado y nivel de dependencia, y orientar hacia los servicios y prestaciones más idóneos para su situación, y en concreto:

- a) La aprobación de las propuestas sobre el grado y nivel de dependencia y de los cuidados que la persona pueda requerir.
- b) Formular propuestas a los Servicios competentes para su resolución, sobre aquellas situaciones que sean valoradas como urgentes.

c) Fiskaltzaren eta/edo organo judizialen gaiak aztertzea eta horientzako txostenak egitea, inoren laguntza behar duten pertsonen babesgabetasun edo abandonu egoeraren inguruan, eta epaitegiek eta auzitegiak eskatutako laguntza ematea.

d) Inoren laguntza behar duten pertsonen autonomiarekin eta bizi-kalitatearekin zerikusia duten alderdi guztiei buruzko aholkularitza eta informazio iraunkorra ematea.

e) Inoren laguntza behar duten pertsonen gizarte eta osasun inguruabarrak kontuan hartuta, Gizarte Ekintza Saileko foru diputatuak aztertzeko eta proposamena aurkezteko agintzen dizkion gai guztien ardura izango du ere.

#### 5. artikulua.—*Osaera*

Inoren Laguntza Behar duten Pertsonak Ebaluatzeko Batzorde Teknikoak kide hauek izango ditu: batzordeburua, bi batzordeburorde, lau batzordekide eta idazkaria.

#### 6. artikulua.—*Batzordeburua*

1. Inoren Laguntza Behar duten Pertsonak Ebaluatzeko Batzorde Teknikoaren burua mendekotasuna ebaluatzeko eskumena duen zuzendari nagusia izango da.

2. Honakoa dagokio batzordeburuari:

a) Batzorde Teknikoaren jarduna zuzentzea, eztabaidak moderatzea eta, bidezko arrazoiak direla medio, horiek etetea.

b) Ohiko bileretarako eta apartekoetarako deialdiak egitea erabakitzea.

c) Bileretarako aztergaiak finkatzea.

d) Indarrean dagoen arautegia betetzen dela zaintzea.

e) Batzorde Teknikoaren aktak eta erabakien ziurtagiriak ikusoneste.

f) Bere botoarekin berdinketak ebaztea, erabakiak hartzeko.

g) Batzordeburuari berezkoak zaizkion gainerako guztiak.

#### 7. artikulua.—*Batzordeburordeak*

1. Lehenengo batzordeburordea Ebaluazio eta Orientazio Zerbitzuko burua izango da.

2. Bigarren batzordeburordea Mendekotasunaren Ebaluaziorako eta Orientaziorako Ataleko burua izango da.

3. Batzordeburordeek batzordeburuak eskuordetzen dizkien eginkizunak eta beraien karguari berezkoak zaizkion gainerako guztiak beteko dituzte.

4. Batzordeburua izendatu ez denean, kanpoan edo gaixorik dagoenean edo legezko arrazoiren bategatik ordeztu behar denean, lehenengo batzordeburordea ariko da haren karguan. Hau ez bada, bigarren batzordeburordea ariko da, eta hau ere falta bada, batzordeko kideetatik hierarkian goren dagoena, antzinatasun handiena duena edo zaharrena, hurrenkera honetan.

#### 8. artikulua.—*Batzordekideak*

1. Hauexek izango dira Inoren Laguntza Behar duten Pertsonak Ebaluatzeko Batzorde Teknikoko kideak:

a) Ezintasuna Ebaluatzeko Ataleko burua.

b) Mendekotasunaren Ebaluaziorako eta Orientaziorako Ataleko Arlo Soziosanitarioko arduradun teknikoa.

c) Mendekotasunaren Ebaluaziorako eta Orientaziorako Ataleko mediku bat; txandaka, emandako kasuen arabera.

c) Mendekotasunaren Ebaluaziorako eta Orientaziorako Ataleko gizarte langile bat; txandaka, emandako kasuen arabera.

#### 9. artikulua.—*Idazkaria*

1. Inoren Laguntza Behar duten Pertsonak Ebaluatzeko Batzorde Teknikoko idazkari lanak Ebaluazio eta Orientazio Zerbitzuko goi mailako teknikari batek beteko ditu; Zuzenbidean lizentziaduna izan beharko da. Honen ordezkia zerbitzu bereko goi mailako beste teknikari bat izango da, hau ere Zuzenbidean lizentziaduna, eta zuzendari nagusiak izendatuko du.

c) El estudio de los asuntos y elaboración de informes dirigidos al Ministerio Fiscal y/o a órganos judiciales con motivo de las posibles situaciones de desamparo o abandono de las personas dependientes, así como prestar la colaboración que sea requerida por los Juzgados y Tribunales.

d) El asesoramiento e información permanente sobre todos aquellos aspectos relacionados con la autonomía y calidad de vida de las personas dependientes.

e) Y todos aquellos asuntos que, en atención a las circunstancias sociales y sanitarias de las personas dependientes, le sean encomendados para su examen y formulación de propuestas por parte del diputado foral del Departamento de Acción Social.

#### Artículo 5.—*Composición*

La Comisión Técnica de Valoración de las Personas Dependientes estará constituida por el presidente o la presidenta, dos vicepresidentes o vicepresidentas, cuatro vocales y un/a secretario/a.

#### Artículo 6.—*Presidencia*

1. Será presidente/a de la Comisión Técnica de Valoración de las Personas Dependientes el Director o Directora General competente en materia de valoración de la dependencia.

2. Corresponde al presidente/a:

a) Dirigir la actuación de la Comisión Técnica, moderando los debates y suspendiéndolos por causas justificadas.

b) Acordar la convocatoria de las sesiones ordinarias y extraordinarias.

c) Fijar el orden del día de las sesiones.

d) Velar por el cumplimiento de la normativa vigente.

e) Visar las actas y certificaciones de los acuerdos de la Comisión Técnica.

f) Dirimir con su voto los empates, a efectos de adoptar acuerdos.

g) Cuantas otras sean inherentes a su condición de presidente/a.

#### Artículo 7.—*Vicepresidencias*

1. Será vicepresidente o vicepresidenta primero/a el Jefe o la Jefa del Servicio de Valoración y Orientación.

2. Será vicepresidente o vicepresidenta segundo/a el Jefe o la Jefa de la Sección de Valoración y Orientación de la Dependencia.

3. Los vicepresidentes o vicepresidentas desempeñarán aquellas funciones que les sean delegadas por el presidente o presidenta y cuantas sean inherentes a su condición.

4. En casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal, el/la presidente/a será sustituido/a, en primer lugar, por el/la vicepresidente/a primero/a, en segundo lugar, por el/la vicepresidente/a segundo/a y, en su defecto, por el o la miembro del órgano colegiado de mayor jerarquía, antigüedad y edad, por este orden, de entre sus componentes.

#### Artículo 8.—*Vocales*

1. Serán vocales de la Comisión Técnica de Valoración de las Personas Dependientes:

a) El Jefe o la Jefa de la Sección de Valoración de la Discapacidad.

b) El Responsable Técnico/a del Área Socio-Sanitaria de la Sección de Valoración y Orientación de la Dependencia.

c) Un/a médico/a del la Sección de Valoración y Orientación de la Dependencia, por turno en función de la coordinación de casos asignados.

d) Un/a trabajador/a social de la Sección de Valoración y Orientación de la Dependencia, por turno en función de la coordinación de casos asignados.

#### Artículo 9.—*Secretaría*

1. Desempeñará la Secretaría de la Comisión Técnica un/a técnico/a superior, licenciado/a en derecho, del Servicio de Valoración y Orientación, que será sustituido, en su caso, por otro/a técnico/a superior, licenciado/a en derecho designado por el Director o Directora General competente en materia de valoración de la dependencia.

2. Batzordeko idazkariak honako hauek egin behar ditu, karguari berezkoak zaizkion beste eginkizunez gainera:

- a) Bileretan egon, hitz egiteko eskubideaz baina botoa emateko eskubiderik gabe.
- b) Batzordearen bileretarako deialdiak egin, batzordeburuak aginduta.
- c) Gaiak bideratzeko prestatu, bileretako aktak idatzi eta baimendu.
- d) Kontsulten, irizpenen eta onetsitako erabakien ziurtagiriak eman.

#### 10. artikulua.—*Antolaketa eta funtzionamendua*

a) Inoren Laguntza Behar duten Pertsonak Ebaluatzeko Batzorde Teknikoa ostiralero bilduko da, goizeko 9etan lehen deialdian eta 9:15ean bigarrenan, batzordeburuak deialdian besterik adierazi ezean.

b) Inoren Laguntza Behar duten Pertsonak Ebaluatzeko Batzorde Teknikoaren bileretarako deialdiak batzordeburuak egingo ditu eta idazkariak jakinaraziko ditu bildu baino hogeita lau ordu lehenago, gutxienez.

c) Ohiko bilerak dira artikuluko honetako a) idatz-zatian xedatutakoaren arabera maiztasunaz egiten direnak. Aparteko bilerak dira batzordeburuak, bere ekimenez zein lehenengo batzordeburuordeak, eta, hori ez badago, bigarrenak proposatuta, berariaz deitzen dituenak.

d) Batzordea balio osoz eratzeko, bileretan batzordeburua edo beraren legezko ordezkaria, idazkaria eta batzordekideen erdiak, gutxienez, egon behar dira.

e) Eguneko gai zerrendan aztergaiak sartu ahal izateko epe bat izango da: bilera egiteko ezarritako egunaren aurreko egun baliaduneko 15:00ak arte.

f) Zerrendan ez dagoen gairik ezingo da eztabaidatu, ezta ebatzi ere; hala ere, zerrendan ez dagoen gai bat presaz aztertu eta eztabaidatu behar dela adieraz daiteke, gehiengoak aldeko botoa emanez gero.

g) Batzordeak aho batez egingo ditu proposamenak; bozketa aparteko kasuetan bakarrik erabiliko da, eta horrelakoetan bileran direnen gehiengo soilaz egingo ditu.

h) Eztabaidak, proposamenak eta espedienteen edukia isilpean eduki behar dira, modu etikoa jokatu behar da, eta pertsonen intimitate eta ohorerako eskubidea errespetatu.

i) Kide anitzeko organoak egiten dituen bilera guztien akta egingo da honako eduki honekin: bertarututakoak, gai-zerrenda, lekua eta denbora, eztabaiden puntu nagusiak eta hartutako erabakien edukia.

j) Batzordeko kide bakoitzak boto partikularra eman dezake, eta bilerako aktan jasoko da.

k) Nolanahi ere, Inoren Laguntza Behar duten Pertsonak Ebaluatzeko Batzorde Teknikoaren antolaketa eta funtzionamendua honako hauek bete beharko ditu: foru dekretu honetan ezarritakoa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko II. tituluko II. kapituluaren kide anitzeko organoek xedatutakoa eta ezarri beharreko gainerako arauak.

#### 11. artikulua.—*Erabakiak formalizatzea*

Inoren Laguntza Behar duten Pertsonak Ebaluatzeko Batzorde Teknikoaren proposamenak, bilera egin eta gero, Gizarte Ekintza Saileko foru diputatuari aurkeztuko zaizkio, aztertu eta dagozkion erabakiak har ditzan, foru aginduen bitartez.

#### 12. artikulua.—*Adituen eta laguntzaileen parte-hartzea*

Inoren Laguntza Behar duten Pertsonak Ebaluatzeko Batzorde Teknikoaren bileretara honakoak deitu ahal izango ditu batzordeburuak: Gizarte Ekintza Sailari, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeari, Bizkaiko Tutoretza Erakundeari atxikitako edozein teknikari eta mendekotasuna ebaluatzeko arloan erakunde laguntzaileetako edozein arduradun.

2. Corresponde al secretario o a la secretaria de la Comisión, sin perjuicio de cuantas otras funciones sean inherentes a su condición:

a) Asistir a las reuniones con voz, pero sin voto.

b) Efectuar la convocatoria de las sesiones de la Comisión por orden de su presidente o presidenta.

c) Preparar el despacho de los asuntos, redactar y autorizar las actas de las sesiones.

d) Expedir certificaciones de las consultas, dictámenes y acuerdos aprobados.

#### Artículo 10.—*Organización y funcionamiento*

a) La Comisión Técnica de Valoración de las Personas Dependientes se reunirá todos los viernes de la semana, a las 9 horas en primera convocatoria o a las 9:15 horas en segunda, salvo que el o la Presidente/ a, en la convocatoria, disponga otra cosa.

b) Las sesiones de la Comisión Técnica de Valoración de las Personas Dependientes serán convocadas por su Presidente/a y notificadas por su secretario/a, al menos, con veinticuatro horas de antelación a su celebración.

c) Son sesiones ordinarias aquellas cuya periodicidad está preestablecida de acuerdo con lo dispuesto en el párrafo a) del presente artículo. Son sesiones extraordinarias aquellas que convoque el o la Presidente/a con tal carácter, por propia iniciativa o a propuesta del o la Vicepresidente/a primero/a y, en su defecto, del o la Vicepresidente/a segundo/a.

d) La celebración de las sesiones de la Comisión requerirá para su válida constitución, la asistencia del presidente/a, o de quien legalmente le sustituya, del secretario o de la secretaria, y de la mitad, al menos, de sus miembros.

e) El orden del día estará abierto a la incorporación de cuantos asuntos puedan ser objeto de examen hasta las quince (15) horas del día hábil anterior al fijado para la sesión convocada.

f) No podrá ser objeto de deliberación o acuerdo ningún asunto que no figure incluido en el orden del día, salvo que sea declarada la urgencia de su examen y deliberación por el voto favorable de la mayoría de sus miembros.

g) La Comisión formulará sus propuestas por unanimidad, utilizándose, excepcionalmente la votación, en cuyo caso, las formulará por mayoría simple de los y las presentes.

h) Se deberá mantener la necesaria reserva de las deliberaciones, propuestas y el contenido de los expedientes, y un comportamiento ético respetando el derecho a la intimidad y el honor de las personas.

i) De cada sesión que celebre el órgano colegiado se levantará acta con el siguiente contenido: asistentes, orden del día de la sesión, las circunstancias de lugar y de tiempo, los puntos principales de las deliberaciones, así como el contenido de los acuerdos adoptados.

j) Los y las miembros de la Comisión podrán formular votos particulares, que se incorporarán al acta de la sesión.

k) En cualquier caso, la organización y funcionamiento de la Comisión Técnica de Valoración de las Personas Dependientes se adecuará a lo establecido en el presente Decreto Foral, y a lo dispuesto para los órganos colegiados en el capítulo II, del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y al resto de las normas vigentes de aplicación.

#### Artículo 11.—*Formalización de acuerdos*

Las propuestas de la Comisión Técnica de Valoración de las Personas Dependientes serán, tras la correspondiente sesión, inmediatamente elevados a la consideración y procedente decisión del Diputado o Diputada Foral del Departamento de Acción Social, adoptando, en su caso, la forma de Orden Foral.

#### Artículo 12.—*Asistencia de expertos y colaboradores*

A las sesiones de la Comisión Técnica de Valoración de las Personas Dependientes podrán ser convocados/as por su presidente/a, cualquier técnico/a adscrito al Departamento de Acción Social, al Instituto Foral de Asistencia Social, al Instituto Tutelar de Bizkaia, así como a cualquier persona responsable de entidades colaboradoras en materia de valoración de la dependencia.

## XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Indargabetu egiten dira honako foru dekretu honetan xedatu denaren aurka dauden lerrun bereko edo beheargoko xedapen guztiak.

## AZKEN XEDAPENAK

**Lehena**

Foru dekretu honetan xedatuta ez dauden aspektuetan, Inoren Laguntza Behar duten Pertsonak Ebaluatzeko Batzorde Teknikoan aginduzkoak izango dira bere antolaketa eta funtzionamendu arauak eta, edonola ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. Tituluko II. kapituluaren xedatutakoa bete beharko du.

**Bigarrena**

Gizarte Ekintza Saileko foru diputatuari baimena eman zaio foru dekretu honetan xedatutakoa garatzeko eta betetzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan, aginduzkoak diren izapideak beteta.

**Hirugarrena**

Foru dekretu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2008ko abenduaren 16ean.

Gizarte Ekintzako foru diputatua,  
JUAN MARÍA ABURTO RIKE

Ahaldun Nagusia,  
JOSE LUIS BILBAO EGUREN

(I-51)

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 167/2008 FORU DEKRETUA, azaroaren 18eko, 2009. urterako, kredituaren muga eta aurrekontuko partidaren esleipenari dagokienez, abenduaren 16ko 262/2.003 foru dekretua eguneratu egiten duena, izan ere, foru dekretu horrek arautu egiten ditu gizarte-integratioko zentroetan sartzeko sistemaren baldintzak eta norbanako laguntza ekonomikoen emakida.**

## ZIOEN AZALPENA

Abenduaren 16ko 262/2003 foru dekretuak, gizarte-integratioko zentroetan sartzeko sistemaren baldintzak eta norbanako laguntza ekonomikoen emakida arautzen ditu.

Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren xedea Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen, hau da, pertsona publiko zein pribatuentzat, betiere 3. artikuluan zehazten diren terminoetan, baldintza jakin batzuk betetzekotan, onesten den edozein diru emateren araubide juridikoa araupetzea da. 8. artikulua, bestalde, dirulaguntzak bideratu aurretik emate horiek araupetzen dituzten oinarriak onetsi beharko direla dio, eta dirulaguntzak ematearen ondoriozko diruzko betebeharrei aurre egiteko kreditu nahikoa eta egozia eduki behar dela ere argitzen du.

Hori dela-eta eguneratu egin da, 2009. urterako, abenduaren 16ko 262/2003 Dekretuaren Xedapen Gehigarria, kredituaren muga zein den eta lirakeen dirulaguntzak aurrekontuzko zein esleipen zehaztetik bideratuko diren zehazten duena.

Hori dela bide, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 foru arauaren 17 eta 64.3. artikuluek emandako ahalmenak erabiliz, Gizarte Ekintza saileko foru diputatuak proposaturik eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2008eko azaroaren 18koa datazko batzarraldian aurretiaz eztabaidatu eta onetsiz, hauxe

## DISPOSICIÓN DEROGATORIA ÚNICA

Quedan derogadas las disposiciones de igual o inferior rango que se opongan a lo establecido en este Decreto Foral.

## DISPOSICIONES FINALES

**Primera**

En lo no previsto en este Decreto Foral, la Comisión Técnica de Valoración de las Personas Dependientes se registrará por sus propias normas de organización y funcionamiento y, en todo caso, por lo dispuesto en el capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**Segundo**

Se autoriza al diputado foral del Departamento de Acción Social a dictar, previo cumplimiento de los trámites que sean preceptivos, cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y ejecución de lo dispuesto en este Decreto Foral.

**Tercero**

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Bilbao, a 16 de diciembre de 2008.

El Diputado General,  
JOSÉ LUIS BILBAO EGUREN

El diputado foral de Acción Social,  
JUAN MARÍA ABURTO RIKE

(I-51)

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 167/2008, de 18 de noviembre, por el que se actualiza para el año 2009, en lo que respecta al límite de crédito y a la asignación de la partida presupuestaria, el Decreto Foral 262/2003, de 16 de diciembre, regulador de las condiciones del sistema de acceso y la concesión de ayudas económicas individuales para ingreso en centros de integración social.**

## EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El Decreto Foral 262/2003, de 16 de diciembre, regula las condiciones del sistema de acceso y la concesión de ayudas económicas individuales para ingreso en centros de integración social.

La Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, tiene por objeto la regulación del régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, entendiéndose por tal toda disposición dineraria realizada a favor de personas públicas o privadas, siempre que cumplan determinados requisitos, en los términos establecidos en su artículo 3. Por su parte el artículo 8 dispone que, con carácter previo al otorgamiento de las subvenciones, deberán aprobarse las normas que establezcan las bases reguladoras de concesión, que deberán contener la existencia de crédito adecuado y suficiente para atender las obligaciones de contenido económico que se derivan de la concesión de subvención.

Por ello, se actualiza para el año 2009 la Disposición Adicional del Decreto 262/2003, de 16 de diciembre, que determina el límite de crédito y la asignación presupuestaria concreta desde la que se deberá tramitar el abono de las ayudas correspondientes.

En su virtud y en uso de las facultades conferidas por los artículos 17 y 64.3 de la Norma Foral número 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, a propuesta del diputado foral del Departamento de Acción Social y previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, en su reunión de fecha 18 de noviembre de 2008.